txklub



LIBURU GOMENDATUA
OTSAILA

PATRICIA HIGHSMITH
Lardaska
Itzultzailea: Josu Barambones

Eleberri beltza
Txalaparta **19,**80 €
350 orrialde (inguru) **15,**84 € Kluba

Aldaketa: **urtarrilaren 25a baino lehen**

(H)ilbeltzak baditu bi

Ongi entzun duzu, bai. Bigarren (H)Ilbeltza bekak badu emaitza: Patricia Highsmithen *The Blunderer* euskaraz irakurri ahalko dugu heldu den urtarriletik aurrera, *Lardaska* izenburupean. Josu Barambonesen laginak irabazi zuen saria, eta orain osorik ekarri du ingelesetik eleberria. Horrela, (H)Ilbeltza bekarekin abiarazitako bildumaren bigarren alea da hauxe, lehen itzulpena ere badena, euskaraz sortutako lanak eta euskarara itzulitakoak tartekatzen baititu bekak. Ondorioz, 2020ko (H)ilbeltzako astean, Highsmithen pertsonaia arrunt bezain xelebreak lardaskan ibiliko dira Baztango karriketan.

SINOPSIA

Bizitza ederra eta etorkizun oparoa du Walter Stackhouse abokatu gazteak: maite du bere emaztea, Clara, eta ez du zalantzarik harremanaren alde egiteko gauzak okertzen direnean ere. Itxuraz hala da, behintzat; egunkarian atera den kasu batek kitzikaturik, ordea, Walter emaztearen desagerpenarekin ameskeriatan hasiko da. Egun batetik bestera, eta lardaskeria batzuk tarteko, bai Corby detektibe tematia, bai adiskideen susmoak atzetik segika izanen ditu Walterrek, Clararen gorpua bide bazterrean agertu ondotik.

Egin ote dezake inguruan dugun jende arruntak halako basakeriarik? Zer erakarpen egon liteke horren atzean? Patricia Highsmithen thrillerrek ohi dutenez, eleberriaren egonezin giroak hasieratik bertatik harrapatuko du irakurlea, eta sakontasun psikologikoak lagunduko dio istorio ikaragarri honen bururaino.

«Highsmithen eleberriek modu paregabean aztoratzen gaituzte...»

THE NEW YORKER

Lardaska gure apalategietan

Testua: (H)Ilbeltzakideak

(H)ilbeltza bekarekin argitaratu dugun lehendabiziko itzulpena da Josu Barambonesek euskaratu duen hau. Bekarekin hasi ginelarik ez ginen ohartu zer saltsatan sartzen ari ginen, zenbat gibel-aitzin suertatuko zitzaizkigun bidean. Baina inkontzientzia horrek ekarri gaitu honat eta liburu berri bat dugu gure apalategietan. Munduko literatura euskaraz leitzeko aukera handitu izanak harro sentiarazten gaitu (H)ilbeltza kideok.

Zerrenda luzea osatu genuen ezker-eskuin proposamenak eskatuz arituei, eta zerrenda hori handitu da literatura beltza ezagutzearekin batera. Dagoen aniztasuna ezagutzeko aukera ederra izan dugu, baina horrek ez digu erraz egin nobela beltz guzien artean bat hautatzea.

Hala, bere nobelak ez zituela beltzetako hartzen jakinda ere, Patricia Highsmithena aukeratu genuen. Akaso haserretuko zen gure bekaren lehendabiziko itzulpena berea izan dela ikusiko balu; gustura jakinen genuke bere iritzia. Idazle ezaguna da, klasikoa eta emakumezkoa. Dezenteko arrazoiak itzulpenerat bideratzeko. *Ripley trebea* eta *Ripleyren jokoa* gaurgero itzuliak dira Igelan, eta hauxe izanen da hirugarrena.

Nobelaren istorioa arras erakargarria egin zitzaigun. Bistan da, ez dugu hemen dena kontatuko, baina Highsmithen Ripley bera edo bertze pertsonaia aunitzen gisan, psikopatiaren mugan dago pertsonaia nagusia. Erruduntasunak eramaten du Walter Stackhouse abokatua gezurrak erraterat, edo egia osoa gordetzerat. Jakin-minak egon beharko ez lukeen tokietan egoterat eramaten du. Hanka sartzen du behin eta berriz Corby detektibe harro eta temazuaren ikerketaren galdetegietan. Pertsonaien arteko trama Kimmel liburuzainak osatzen du, isila eta serioa, diskretua. Nobelaren bukaera artio desesperagarri bihurtzen da hiruen arteko harremana. Hildakoak, berriz, bi emakumezko dira. Bat ez dugu ezagutzen, baina bertzea, Clara Stackhouse, bere orduko maitalearen izaerarekin osatu omen zuen Highsmithek. Egilearen hitzetan, egonezina sortzen ziona. Eta halako giroa sortzen dute gertakariek, bata bertzearen gibeletik. Zarpaila den Walter horri behin eta berriz "hago geldirik, hago isilik!" errateko gogoa pizten duena.

Jon Alonsoren *Beltzaren koloreak* libururat jo dugu zerbait gehiago jakiteko, eta hor ikasi dugu pertsonaien psikologian sartzeko Henry James idazle estatubatuarra bezain abila zela Highsmith, ederki txertatzen zituela pertsonaien barne-motibazioak eta humanoen dudazko jokamoldetarako joera nobeletan –thriller moduko nobeletan–, emaitza bikainak lortuz. Akaso nobeletan psikologiak hartzen duen pisuarengatik ez zuen Highsmithek sailkapen hori maite bere lanetarako.

> *«Norbaitek idatzi du Patricia Highsmithek bere pertsonaiak armiarma batek bere sarean harrapatutako euliak bailiran tratatzen dituela. Ez dut uste hori horrela denik. Bere amodio eta gorrotoak pertsonaiengan islatzen ditu, dudarik gabe. Baina badaki estereotipoei ihes egiten, eta askotan hiltzaileak dira haren obrako pertsonaia erakargarrienak. Ez da ez, topikoetan aise erortzen den horietakoa. Sorginak laguntza eske doakionari eskaintzen dion begirada maitekorraz begiratzen diola esango nuke nik: gehienez ere azkenean ispilu bat edo emango dio, bere burua hobeto ezagutu dezan»*
>
> **PETER COLLINS**

EGILEA

Patricia Highsmith

1921, Fort Worth (Texas, USA) - 1995 Locarno (Suiza)

(Mary Patricia Plangman). Amerikako Estatu Batuetako idazlea. Europan giroturiko eleberri beltz eta suspensekoengatik eman zen ezagutzera. Highsmithen pertsonaiak eguneroko bizitza arruntaren girotik, bitxiaren eta arrazoi gabeziaren mundura iragaten dira ezari-ezarian. Zinema zuzendari ezagunek eraman dituzte pantailara haren obrak: Hitchcock, René Clément, Claude Autant-Lara eta Wim Wendersek. Highsmithenak dira, besteren artean: *Strangers on a train* (1950), *Ripley trebea* (1955), *Ripleyren jokoa* (1974) eta *Poliki, poliki haizetan* (1979), azken hirurak euskarara ekarriak. Ezagunenak nobelak izan arren, kontakizun laburrak ere idatzi zituen, gehienbat makabroak, satirikoak eta umore beltzez ederki jantziak.

EGILEAREN LAN GEHIAGO



Ripley trebea
Itzulpena: Asun Garikano

Eleberri beltza
Igela
315 orrialde
11,00 € | **10**,45 € Kluba

Ripleyren jokoa
Itulpena: Maria Garikano

Eleberri beltza
Igela
292 orrialde
8,00 € | **7**,60 € Klub